HIZKUNTZAK ATZERRIAN

10 urtetik aurrera

uda 2020

MARTXAN JARRI

Ilusioz betetako talde bat, 14 urte Bilbon, ehunka programa atzerrian, milaka ikasle esperientzia ahaztezinekin... hori da **LEADERS**, eta beste urte batez zuengana hurbiltzen gara aukera ugari eskaintzeko.

Betiko filosofia berarekin jarraitzen dugu, eta are gehiago aurten, jada **ASEPROCEko (Atzerriko Ikastaroen Sustatzaileen Espainiako Elkartea)** kide garela. Honek gehiago indartzen du kalitatearekin eta bezeroarentzako zerbitzuarekin dugun konpromisoa.

Urtero bezala, orri hauetan profil guztietako ikasleentzat pentsatutako gure programa gogokoenak aurkituko dituzue: Malahide-Irlanda- edo Ashford-Erresuma Batua- bezalako leku seguru eta liluragarrietan atzerrira egiten diren lehen irteerak, familian edo egoitzan ostatu hartzeko aukerekin; hizkuntzak eta kirola; familiarekin bizitzeko programak, tribuko kide bat gehiago izateko; AEBetako eta Kanadako kanpalekuak, bertako gazteekin aire libreko jarduerez gozatzen; 16 urtetik gorako gazte helduentzat, ikastaro trinkoak, Dublin, Cambridge, Toronto, Auckland edo Hego Afrika bezalako hiriak ezagutzeko aisialdiarekin, hori guztia independentzia eta segurtasun dosi on batekin.
Irlandan, Estatu Batuetan eta Kanadan **eskola ikasturte balioztagarrien** alde apustu indartsua egiten jarraitzen dugu, 12 urtetik aurrera. Gauza ezberdin baten bila zabiltzatenentzat, animatu Australia eta Zeelanda Berria bezalako tokiei aukera ematera, uda aprobetxatuz hiruhileko bat High School batean egiteko. Zuen bizitzako urtea bizitzeko garaiz zabiltzate. Orrialde hauetan bilatzen zenutena aurkitzen ez baduzue, deitu lasai, ikasle bakoitzarentzat programa bat dugu.

Mila esker aurten ere zuen konfiantzagatik.

leaders
Languages, Education and Designed Recreation Services

aseproce
Asociación Española de Promotores de Cursos en el Extranjero

UDAKO IKASTAROAK

- Irlanda 4
- Erresuma Batua 8
- Estatu Batuak 12
- Kanada 15
- Zeelanda Berria 16
- Australia 17
- Frantzia 18
- Alemania 19
- Summercamp Leon 20
- Beste norakoak 21

ESKOLA IKASTURTEA

- Irlanda 22
- Estatu Batuak eta Kanada 23

PROGRAMA BEREZIAK

- Hizkuntza ikastaroak helduentzat, 16 urtetik aurrera 24

MALAHIDE KOSTALDEKO HERRI BAT DA, Dublineko iparraldean kokatua. Herri bitxi honek, hiritik 20 minutura, sari ugari jaso ditu bere itxura eta kontserbazioari esker. "Malahide has it all!" esloganaren azpian, herri honek dena dauka ingelesa ikasten duzun bitartean gozatzeko: ingurune segurua eta atsegina, hondartzak eta natura, eta familia eta kalitatezko eskola.

BEGIRALE LAGUNTZAILEA

BELA ETA ZALDIKETA (Aukerakoa)

FAMILIA

IRLANDA / Malahide

Adinak: 11-17 urte

Datak: ekainaren 27, uztailaren 18 eta abuztuaren 1-22/Beste datak aukeran

INGELES IKASTAROA:
- Ingeles orokorra: 15 ordu astean.
- Ingeles trinkoa, Cambridgeko azterketak prestatzea: 20 ordu astean.

OSTATUA:
Familia anfitrioietan, mantenu osoan (packed lunch, egun erdian) eta nazionalitate desberdineko ikasle batekin gela partekatzeko aukera.

GIZARTE PROGRAMA:
Kultur, kirol eta aisialdiko jarduerak astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5ak arte: Dublingo Tourra, Christchurch katedrala, Trinity College, Historia Naturaleko Museoa, bolatokia, diskoa edo dantza irlandarra. Astero egun osoko txangoa: Kilkenny, Glendalough Lakes edo Belfast.
Aukerako programa: zaldiketa edo bela, 4 arratsalde astean.

PROGRAMAREN BARNE

- Bilbotik joan-etorriko hegaldi erregularra, adierazitako egunetan.
- Irlandako etorrera eta itzuleran lekualdatzea.
- Ingeles ikastaroa, deskribapenaren arabera.
- Azterketa-materiala eta aprobetxamendu-ziurtagiria.
- Ostatua familian, mantenu osoan.
- Jardueren eta txangoen programa.
- Egonaldi osorako autobus-baimena.
- Gaixotasun eta istripu asegurua.
- Begirale laguntzailea 12 ikasleko taldearentzat.
- Leaders motxila.

FAMILIA

IRLANDA / Dublin, 4: 1

Adinak: 11-17 urte

Datak: ekainaren 29tik abuztuaren 14ra

IKASTARO TRINKOA

Programa Dublingo hegoaldeko bizitegi-gune batean garatuko da, ingurune berde eta seguruan, hiriaren erdigunera sarbide ona duela. Gela bakoitzeko 4 ikasle bakarrik izanda, programa trinko honek ahozko komunikazioa azpimarratzen du, arratsaldeetan irakaslearekin eta ikaskideekin bisitak eta jarduerak egiten baitira, eta, horietan, ikasgelan ikasitakoa praktikatzen baita.

Ingeles eskolak: 15 ordu astean. Tarteko maila behar da programa honetarako.

Jarduera programa:
Astean 3 arratsalde, 6,75 ordu, ikasleek bisitaz gozatzen dute irakaslearekin. Gainera, astean 2 jarduera sartzen dira arratsaldeetan: Dublinia Experience, rokodromoa edo kirolak, eta egun osoko txangoa: Kilkenny, Glendalough edo ur parkea.

OSTATUA:
Familian, mantenu osoan, eta beste nazionalitate bateko ikasleekin gela partekatzeko aukerarekin. Eskolak autobus zerbitzu pribatua du joan-etorrietarako.

PROGRAMAREN BARNE

Irlandako etorrera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua familian mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

FAMILIA

IRLANDA / Familia Bizitza

Adinak: 12-17 urte

Datak: ekainaren 15etik abuztuaren 15era

KLASERIK EZ, FAMILIA BIZITZA BAKARRIK

Familia irlandar batekin, ikasle espainiarrekin harremanik eta klaserik gabe, bizi nahi duten ikasleentzat programa egokiena da. Eguneroko jarduera errazak, hala nola erosketak egitea, familiako jarduerak, familiarekin txangoak eta irteerak egiteaz gain, gazteei ingelesez komunikatzeko gaitasuna hobetzen laguntzen diete.

PROGRAMAREN BARNE

Irlandako etorrera eta itzulera lekualdatzea, ostatua familian mantenu osoan, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

Hiriaren erdian dagoen hiri-campusetik Dublin esperimentatu nahi duten **16-18 URTEKO GAZTEENTZAT,** programa hau aukera ezin hobea da. Programaren gakoak: ingeles ikastaro trinkoa, gazte helduei egokitutako gizarte programa, erdiguneko kokalekua eta aisialdia. Ezagutu Dublin!

FAMILIA

EGOITZA

FAMILIA / EGOITZA

IRLANDA/ Dublin

Adinak: 16-18 urte

Datak: ekainaren 28tik abuztuaren 9ra

INGELES IKASTAROA:
20 ordu astean. B1 maila behar da programa honetarako.

OSTATUA:
Familian, mantenu osoan eta beste nazionalitate bateko ikasle batekin gela partekatzeko aukera.

Egoitzan, Trinity Hallen, banakako gelan eta mantenu osoan.

GIZARTE PROGRAMA:
Discovering Dublin paketeak bi kultura-jarduera biltzen ditu astean, eta jarduera batzuk afaldu osteko gauetan: Guiness fabrika bisitatzea, Viking Splash, Howth bisitatzea edo kirolak. Familian bizitzea nahiago dutenentzat, programak bi jarduera eskaintzen ditu gauez. Astean egun osoko txangoa Belfast edo Kilkenny bezalako hirietara, besteak beste.

PROGRAMAREN BARNE

- Irlandako etorrera eta itzulera lekualdatzea.
- Ingeles ikastaroa, astean 20 ordukoa.
- Azterketa-materiala eta aprobetxamendu-ziurtagiria.
- Ostatua, mantenu osoan, familia hartzailean edo egoitzan.
- Jardueren eta txangoen programa.
- Gaixotasun eta istripu asegurua.
- Leaders motxila.

EGOITZA

IRLANDA / Maynooth

Adinak: 11-17 urte

Datak: ekainaren 27tik uztailaren 31ra

Maynooth unibertsitate-hiria da, Dublindik 24 km-ra baino ez. Tamaina, ikasle-giroa eta Dublingo ikastetxearekiko komunikazio ona direla eta, hiri hau ezin hobea da ingeles ikastaro bat egiteko. Programa unibertsitate-campusean egiten da, ikastetxetik 5 minutura.

Ingeles eskolak: 18 ordu astean, lan-mundura bideratutako asteko proiektuak barne.

GIZARTE PROGRAMA:
Kultur eta kirol jarduerak, egunero eskola ondoren, baita gauez ere. Bi ibilaldi izango dira programan: astean egun erdia, horietako bat Dublinera, eta astean egun osoko txangoa: Moher, Galway edo Belfasteko labarrak.

OSTATUA:
Egoitzan, unibertsitateko apartamentuetan, banakako gelan eta mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Irlandako etorrera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua egoitzan, mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

OSTATUA

IRLANDA / Dublin Griffith College

Adinak: 11-17 urte

Datak: ekainaren 28tik uztailaren 26ra

FUTBOLA
ERRUGBIA
GOLFA
ZALDIKETA

Griffith College Dublinen bihotzean dagoen armadaren zentro historiko bat da, eta 2005ean campus moderno bihurtu zen. Ikastaroak astean ingeleseko 15 eskola ordu, jarduerak, txangoak eta programak biltzen ditu.

Berariazko kirol jarduerak: Juventus Academy futbola, golfa, errugbia edo ekitazioa.

Ingeles eskolak: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
Kultur eta kirol jarduerak arratsaldez eta afalostean: dantza irlandarra, diskoa, boloak, pista jokoak, talentuak, olinpiadak edo zinema. Astero egun osoko txangoa: Clonmacnoise, Kilkenny edo Belfast.

Aukerako kirol programa: Juventus Academy - futbola, golfa, Leinster errugbia, tenisa edo zaldiketa.

OSTATUA:
Egoitzakoa: campuseko apartamentuak, logela bikoitzetan, bainugelarekin eta mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Irlandako etorrera eta itzulera lekualdatzea, ingeleseko ikastaroa, egoitzako ostatua, mantenu osoko erregimena, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

FAMILIA EDO EGOITZA

ERRESUMA BATUA / Ashford · Kent

Adinak: 12-16 urte

Datak: uztailaren 12tik abuztuaren 2ra

BEGIRALE LAGUNTZAILEA

FAMILIA

EGOITZA

Ashford 60.000 biztanleko hiria da, Londrestik 50 km-ra. Gure programa Ashford Schoolen izango da, kirol-instalazio bikainak dituen barnetegi ospetsuan: igerileku klimatizatua, tenis-jokalekuak, futbol-zelaia eta kirol-pabiloi estalia.

Ingeles eskolak: 20 ordu astean. "English in Action" ahozko komunikazioan eta Cambridgeko azterketetarako prestakuntza-tailer osagarrietan arreta jartzea.

GIZARTE PROGRAMA:
Eskolen ondoko jarduerak, astean egun erdiko bi bisita egiteaz gain: Canterbury, Dover, Stratford edo Leedseko Gaztelua eta egun osoko 2 txango, astean behin: Brighton, Cambridge edo Londres.

OSTATUA:
Familia edo egoitza, nazionalitate desberdinetako ikasleekin ostatua partekatuz. Mantenu osoa.

PROGRAMAREN BARNE

Bilbotik joan-etorriko hegaldia, iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, familian edo egoitzan ostatu hartzea, mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa, begirale laguntzailea eta Leaders motxila.

FAMILIA

ERRESUMA BATUA / York

Adinak: 11-17 urte

Datak: ekainaren 25etik abuztuaren 15era

Erdi Aroko hiria da York, eta ez du inor epel uzten. Hirigune zaharra inguratzen duen harresi ibilgarri handi batekin, hiri segurua, dibertigarria eta giro oso sozialekoa da. Txikia eta dotorea, Yorkek gure ikasleak kaleen artean galtzera gonbidatzen ditu.

Ingeles eskolak: astean 15 ordu eta aukerako tailerrak.

GIZARTE PROGRAMA:
Eskolen ondoren, eskolak egunero eskaintzen ditu mintzapraktika, idazketa, literatura eta kultur eta kirol jarduera ludikoagoak. Astean 3 gauetan jarduerak antolatzen dira: diskoa, pistak hirian zehar, bolatokia, ghost walk edo barbakoak. Asteburuan, txangoa Bolton Abbeyra edo Robin Hood Bayra. Ezagutu York!

OSTATUA:
Familian, beste nazionalitate bateko ikasleekin logela partekatuz eta mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, familian ostatu hartzea mantenu osoan, garraio-txartela, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

EGOITZA

ERRESUMA BATUA/ Liddington

Adinak: 10-17 urte

Datak: ekainaren 28tik abuztuaren 9ra

FUTBOLA

ABENTURA ANITZ

Liddington PGL kirol eta abentura anitzeko gunea da. Naturan dago, Swindonen, Bath-etik gertu. Kirol- eta abentura-instalazio bikainak ditu: 11 futbol- eta errugbi-zelai, eskalada-murrua, arku-tiroa, raftinga edo abseilinga, eta baso eta naturaren artean bi lakuk, ezin hobea egiten dute kirola eta abentura maite dituztenentzat.

Ikasi ingelesa natura betean!

Ingeles eskolak: astean 15 ordu.

GIZARTE PROGRAMA:

Kultur, kirol eta abentura jarduerak, baita gau-ekitaldiak ere egunero: mini-olinpiadak, diskoa, karaokea eta askoz gehiago. Egun osoko txango bat eta astean egun erdiko beste bat: Bath, Londres Tamesis ibaian barna, Oxford edo Windsor Castle.

Aukerako futbol programa: 12 ordu astean.

OSTATUA:

Egoitzan, nazionalitate desberdinetako ikasleekin ostatua partekatuz eta bainu pribatuarekin. Mantenu osoa.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua egoitzan, mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

EGOITZA

ERRESUMA BATUA/ Elite Sports Academy

Adinak: 10-16 urte

Datak: uztailaren 1etik 29ra

FUTBOLA

SASKIBALOIA

TENISA

GOLFA

DANTZA



Kirol-programa zorrotzago baten bila dabiltzan gazteentzat, non, hizkuntza praktikatzeaz gain, beren trebetasunak hobetzen dituzten, programa perfektua dugu: **entrenamenduak astean behin, irakasle profesionalekin: futbola, saskibaloia, tenisa, golfa edo dantza.** Britainia Handiko barnetegi batean egiten dute ikastaroa, instalazio bikainekin, Londrestik 30 km-ra.

Ingeles eskolak: aukerakoa, 12 ordu astean.

KIROL PROGRAMA:

20 ordu astean: futbola, saskibaloia, tenisa, golfa edo dantza.

GIZARTE PROGRAMA:

Kirola egin ondoren, gazteek kultur- eta aisia-jarduerez gozatuko dute. Asteko egun osoko txangoa, kanpamentuko gaiekin zerikusia duena. Londres ere bisitatuko dute.

OSTATUA:

Egoitzan, banakako edo partekatutako gelan eta mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, kirol programa, ostatua egoitzan, mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

IRAKASLEAREN ETXEA

ERRESUMA BATUA/ Hometuition: 2 to 1

Adinak: 12-13 urte eta 14 urtetik aurrera

Datak: ekainaren 28tik abuztuaren 15era

Ikasi ingelesa zuzenean irakaslearen etxean: irakaslearen etxe berean ematen diren banakako eskolak, egonaldia barne eta mantenu osoan. 2 to 1 aukeraren bidez, maila bereko nazioarteko bi ikaslek egonaldia eta eskolak partekatu ditzakete irakaslearen familian.

Ingeles eskolak: astean 15 ordu. Ikastaro trinkoagoa egiteko aukera, astean 20 edo 25 ordu.

GIZARTE PROGRAMA:
Astean bi jarduera egingo dira familiarekin.

OSTATUA:
Irakaslearen etxean, mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

GEHIENEKO PROBETXUA

FAMILIA EDO EGOITZA

ERRESUMA BATUA/ Ikasturte amaiera ikastetxe ingeles batean

Adinak: 11-16 urte

Datak: 2 edo 3 aste ekainetik aurrera

Programa honen bidez, gure gazteek Britainia Handiko ikastetxe publiko batean bizitza egin ahal izango dute, ingelesa ikasi eta eskoletan erabat integratzen diren bitartean, baita ikasleen bizitzan eta Collegeko gizarte-programan ere. Ikasle bakoitzari “buddy” motako ikaskide bat esleitzen zaio, integratzen eta lagun berriak egiten lagunduko diona.

Devon, Sussex, Salisbury edo Blackpool konderrietako gune txiki eta seguruetan daude ikastetxeak.

OSTATUA:
Familia hartzailean edo barnetegian, mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Matrikula ikastetxe publikoan, familia edo barnetegia, eta aseguru medikoa.

INTEGRAZIOA NESKA-MUTIL BRITAINIARREKIN

EGOITZA

ERRESUMA BATUA / Cambridge YOUNG ADULTS

Adinak: 16-19 urte

Datak: ekainaren 28tik abuztuaren 15era

GAZTE HELDUAK EGOITZAN

Cambridge unibertsitate-hiri zaharra da, tradizioa eta hirigune modernoa bateratzen dituen giro aparta duena. Gazte helduentzako gure egoitza-programa hiriko collegeetako batean egiten da, hirigunetik 5 minutura oinez.

Ingeles eskolak: 15 edo 21 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
"Hidden Cambridge" premisapean eta eguneroko jardueren bidez, gazteek hiriko txokoak, unibertsitatea eta kirolari, idazle edo zientzialari ospetsuen historia ezagutuko dituzte, kirola egin eta Londres, Oxford edo Windsorera txangoak gozatzeaz gain. Hori guztia nazioarteko giroan eta lagun berriekin gozatzeko denbora librearekin.

OSTATUA:
Egoitzakoa, gela bikoitz edo hirukoitzetan, ikastetxetik 10 minutura dagoen college batean. Mantenu osoa.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua egoitzan mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

FAMILIA

ERRESUMA BATUA / Brighton YOUNG ADULTS

Adinak: 16-22 urte

Datak: uztailaren 25tik abuztuaren 15era

GAZTE HELDUAK FAMILIAN

Brightonek, kostaldeko Londres izenaz ezaguna, Britainia Handiko hiriburuak eskain dezakeen guztia du, kultura aberatsa eta sutsua galdu gabe. Gainera, munduko hondartza onenetako bat du. Programa Hove-n egiten da, Brightonekin oso ondo komunikatutako bizitegi-gunean.

Ingeles ikastaroa: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
Astero, gazteek txango bat egingo dute Londres, Stonehenge eta Bath edo Canterbury bezalako hirietara, eta, horrez gain, jarduerak egingo dituzte arratsaldero astelehenetik ostiralera: talent show, kirolak Victoria Parken, bolatokia, hondartzako egunak edo ingurunea ezagutzeko irteerak.

OSTATUA:
Familian, banakako gelan eta mantenu erdian: gosaria eta afaria.

PROGRAMAREN BARNE

Erresuma Batuan iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua familian, mantenu erdian, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

BELARDI IZUGARRIETATIK HASITA mendiak, ibai dotoreak eta basamortuko paisaiak, Coloradok ez du beste inongo tokirekin antzik. Estatu horrek mirari naturalen aukera izugarria eskaintzen du, baita kultura-ondare aberatsa ere, garai bateko trenbideen, meatzaritza-museoen eta AEBetako indigenen artean mirets daitekeena.

BEGIRALE LAGUNTZAILEA

FAMILIA

CAMP

MURGILKETA

ESTATU BATUAK / Denver

Adinak: 13-17 urte

Datak: 4 aste, ekainaren 24tik uztailaren 23ra

BIZIKIDETZA FAMILIAN:

Denverreko programa kultura amerikarrean erabat murgiltzeko programa da, klaserik gabe, familiarekin bakarrik. Aukerak askotarikoak dira: programa osoan familiarekin bizitzea edo 2 edo 3 asteko familiako bizitza AEBetako ohiko kanpamentu batera joatearekin konbinatzea, bertako gazteekin bizitzeko. Animatu eta bizi Amerikako esperientzia Old Wild Westen.

AMERICAN CAMP:

Amerikarrentzako kanpamentuak, hainbat jardueraz betetako abentura-kanpaldiak: mendi-ibiliak, arku-tiroa, mountain bikea, uretako jolasak, orientaziokoak, kayakinga, gaueko suak... Han, gazteek hainbat balio ikasiko dituzte, hala nola ingurumena errespetatzea, talde-lana, bizikidetza eta erantzukizuna, lidergo- eta komunikazio-trebetasunak garatzen dituzten bitartean.

PROGRAMAREN BARNE

- Joan-etorriko hegaldia, Bilbotik.
- Iritsiera eta itzulera lekualdatzea AEBn.
- Ostatua familian, mantenu osoan.
- American camp, programaren arabera.
- Eritasun eta istripuetarako aseguru medikoa.
- Begirale laguntzailea 12 ikasleko taldearentzat.
- Leaders motxila.

FAMILIA

ESTATU BATUAK/ Asheville, Ipar Carolina

Adinak: 14-17 años

Datak: ekainaren 27tik uztailaren 25era; ekainaren 27tik uztailaren 18ra

Asheville, Ipar Carolinako altxorra, Blue Ridgeko mendien arteko haran ederrean dago. Natura basatiz inguratuta dago, lakuz, errekastoz eta ur-jauziz inguratuta, eta ur-kirolak egitera gonbidatzen du, batez ere udan zehar. Gazteak familia amerikarrekin bizi dira, eta eskolak elkarrizketa, praktiketako eta ahozko komunikazioko tailer gisa antolatzen dira.

Ingeles eskolak: 12 ordu astean, komunikazio tailerrak. Anglia English Exams.

GIZARTE PROGRAMA:
Kirol- eta aisialdi-jarduerak egunero: mendi-ibiliak, ur-jardueretarako laku eta ur-jauzietara bisitak, pizza time, boluntario-lanak, inguruko high schooletara bisitak, beisbol-partida profesionalak, bolatokia, barbakoak, ongietorria eta agurra. Asteko egun osoko txangoa: Carowinds Theme Park, Whitewater rafting, Green River Tubing.

OSTATUA:
Familian, beste ama-hizkuntza bateko nazioarteko ikasle batekin logela partekatzeko aukera, mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

AEBn iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua familian mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

ESTATU BATUAK/ Bizikidetza familian

Adinak: 14-17 urte

Datak: ekainaren 14tik abuztuaren 15era

Programa hau ingeles maila ona eta familia amerikar batean integratzeko eta moldatzeko gogoa duten gazte helduei zuzenduta dago: klaserik gabe eta Espainiako ikasleekin harremanik gabe. Programa Estatu Batuetako hainbat gune, gehienetan komunitate txiki eta seguruak, non ikasleak integratuak eta ongi etorriak sentitzen diren. Eremuak aldatu egiten dira ekialdeko kostatik mendebaldera, Kalifornia eta mendebalde erdiko estatuak barne.

Daten malgutasuna programa egiteko.

KLASERIK EZ, FAMILIA BIZITZA BAKARRIK

PROGRAMAREN BARNE

AEBn iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ostatua familian mantenu osoan, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

EGOITZA

ESTATU BATUAK/ Fullerton, California

Adinak: 15-18 urte

Datak: 3 aste, ekainaren 21etik uztailaren 1era

SURFA

ZINEMA

DISCOVER

Kaliforniako kosta eguzkitsuan, ingelesa eta surf programa edo ingelesa eta zinema programak egiten dira; edo Kalifornia ezagutu, kirola eta jarduera gogokoenak ingelesa ikastearekin konbinatu nahi dituzten gazteentzat. Programa Kalifornia State Unibertsitatean (Fullerton) izango da, Los Angelesetik 30 km-ra.

Ingeles ikastaroa: 18 ordu astean.

SURF CAMP:
10 ikasgai astean, jantzien alokairua eta taula barne.

CINENA AND ACTING CAMP:
8 ikasgai astean eta azken emanaldia.

DISCOVER CALIFORNIA:
Besteak beste, Hollywood, Disneyland, Universal Studios, Beverly Hills, downtown LA, Huntington beach eta akuarioa bisitatuko ditugu.

OSTATUA:
Unibertsitateko egoitzan, logela partekatuan eta mantenu osoan astelehenetik ostiralera, brunch larunbatetan eta brunch eta afaria igandeetan.

PROGRAMAREN BARNE

AEBn iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua egoitzan mantenu osoan, jarduera programa eta kirolak deskribapenaren arabera, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

EGOITZA

ESTATU BATUAK/ Boston

Adinak: 15-18 urte

Datak: 3 aste, ekainaren 21etik abuztuaren 1era

SASKIBALOIA

DISCOVER



Boston mundu osoko ikasleak erakartzen dituen lekua da. Programa Fisher Collegen izango da, hiriaren erdian. Gazteek ingelesa, saskibaloia eta ingeles programa edo ingelesa eta Boston ezagutzeko programen artean aukera dezakete.

Ingeles ikastaroa: 18 ordu astean.

BASKETBALL CAMP:
Astean 12 ikasgai unibertsitateko instalazioetan.

DISCOVER BOSTON:
Freedom Trail bisitatzea, Askatasunaren Ibilbidea egitea, Beacon Hillen arkitektura kolonialaz gozatzea edo Cambridgen Harvardeko Unibertsitatea ezagutzea dira egiten dituzten jardueretako batzuk.

OSTATUA:
Unibertsitateko egoitzan, logela partekatuetan eta mantenu osoan astelehenetik ostiralera, brunch larunbatetan eta brunch eta afaria igandeetan.

PROGRAMAREN BARNE

AEBn iritsiera eta itzulera lekualdatzea, ingeles ikastaroa, ostatua egoitzan mantenu osoan, jarduera- eta kirol-programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

FAMILIA

KANADA / Vancouver

Adinak: 13-17urte

Datak: uztailaren 6tik abuztuaren 14ra

ROCKY MOUNTAINS EXPERIENCE

Vancouver hiri modernoa da, Ozeano Bareak eta baso eta mendi eremu handiek inguratua. Columbia Britainiarrera eta Kanadako mendebaldeko kostaldeko merkataritza eta kulturaren bihotzera sartzeko atea da. Gure programa Hastingseko eskolako campusean burutzen da, hiriaren bihotzean.

Ingeles ikastaroa: 28 ikasgai trinko astean. Astean bitan, jarduera akademikoak egiten dira ikasgeletatik kanpo, Kanadako tradizio eta kulturaren edo lehen kolonoen artearen eta kulturaren inguruan.

GIZARTE PROGRAMA:
Kirol- eta aisialdi-jarduerak egunero: Berry picking, Ice hockey, Whistler tour, Victoria, hondartzako jarduerak edo txangoak itsasontzian eta **4 eguneko bidaia Rocky Mountains-era, Albertan.**

OSTATUA:
Familian, beste ama-hizkuntza bateko nazioarteko ikasle batekin logela partekatzeko aukera, mantenu osoan. Kanadako familiak kultura-aniztunak dira, eta jatorri desberdinak izan ditzakete. Familiak hiriaren kanpoaldeko bizitokietan bizi dira, garraio publikoan batez beste 45 minutura.

PROGRAMAREN BARNE

Iritsiera eta itzulera lekualdatzeak, ingeles ikastaroa, ostatua familian mantenu osoan, gizarte programa, programa social,4 eguneko bidaia Rocky Mountains-era, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

KANPALEKUA

KANADA / Canadian Camps

Adinak: 12-17 urte

Datak: ekainaren 1etik abuztuaren 22ra

Kanadan kanpaleku batez gozatzeak gaitasunak garatzeko aukera ematen du, ez soilik ingelesaren hobekuntzan, talde-lanean, enpatian, autoestimuan eta independentzian ere, hori guztia giro ludikoan eta jokuekin, kirol jarduerekin, antzerkia, eskulanak, eta hori guztia ingurune natural ikusgarri batean.
Galde iezaguzu!

ZEELANDA BERRIA ANIZTASUN KULTURAL ETA EDERTASUN NATURAL HANDIKO HERRIALDEA DA: mendi glaziarrak, ur biziak dituzten ibaiak, geyserrak, baso-erreserba ugari eta hondartza bakartiak. Gure programa bi kokalekutan burutzen da:

Auckland, “belen hiria” bezala ezaguna den, eta iparraldeko uhartean dagoen hiri kosmopolita da, erdi itsasokoa eta erdi hiritarra. Hondartza idilikoak ezagutzeko eta parke natural, sumendi eta itsas erreserbez betetako natura esploratzeko aproposa da.

Paisaia paregabeak, geyserrak, ur termalak eta maorien tradizio harrotsuak direla eta ezagutzen da **Rotorua**, naturarekin bat egiteko leku ezin hobea.

HIGH SCHOOL MURGILKETA

FAMILIA

ZEELANDA BERRIA/ Auckland Rotorua

Adinak: 15-17 urte

Datak: ekainaren 15etik: 8, 10 edo 12 aste

HIGH SCHOOL:

Programa hau herrialdeko irakaskuntza sistema ezagutu nahi duten gazteentzat da, eskola publiko batera joanez, eskoletan parte hartuz eta hizkuntza hobetzeko asmoz. Zeelanda Berriko ikasturtea urtarrilean hasi eta azaroan amaitzen denez, uztaila-iraila hiruhilekoa garai egokia da High School batean murgiltzeko.

INGELES IKASTAROA:

Hiruhilekoa uztailaren amaieran hasi baino lehen, eta ikasleak eskolak hasi aurretik ingurunera egokitzeko osagarri gisa, programak ingeleseko hiru asteko eskolak eta jarduerak eskaintzen ditu, hiriko ingeleseko eskola ezagun batean.

OSTATUA:

Familian, mantenu erdian, ama hizkuntza desberdineko nazioarteko ikasle batekin gela partekatzeko aukera.

PROGRAMAREN BARNE

- Zeelanda Berrian iritsiera eta itzulera lekualdatzeak.
- 3 asteko ingeles ikastaroa.
- Jarduera programas 3astetan zehar.
- Ostatua familian, mantenu erdian.
- High Schooleko matrikula.
- Tokiko koordinatzailea.
- Aseguru medikoa eta istripu-asegurua.
- Leaders motxila.

KLIMA ONA, HONDARTZA eta bizimodu lasaia atsegin badituzu, ingelesa praktikatzeko leku aproposa da Australia. Eskola pribatu batean murgilketa-programak herrialdeko kultura sakonago ezagutzeko aukera emango dizu, Australiako beste ikasle bat bezala ikastetxe batean integratuz eta zure kirol gogokoena eszenatoki paregabean praktikatzen.

HIGH SCHOOL MURGILKETA

FUTBOLA

SASKIBALOIA

TENISA

SPORT ELITE AUKERA

FAMILIA

AUSTRALIA/ New South Wales

Adinak: 15-17 urte

Datak: ekainaren 27tik abuztuaren 29ra

Hegoaldeko Gales Berrian garatzen da programa, eta High School pribatu batera joatea eta eliteko kirol-programa (aukerakoa) konbinatzen ditu.

Programak Sidneyn bi eguneko Orientazio Kanpalekua barne hartzen du, jarduera sorta anitzekin, hala nola bisita turistikoak, kulturalak eta kirolak.

HIGH SCHOOL:
Australiako eskola-sistema ikasketa-maila handikoa da, eta kalitate handiko eskolak eskaintzen ditu. Gainera, ikastetxeek curriculumetik kanpoko jarduerak sustatzen dituzte, hala nola kirol, dantza eta antzerki elkarteak. Ikasturtea otsailean hasten da, abenduan amaitzen da eta 4 alditan banatzen da. Horietako bakoitzak 9-10 aste ditu.

SPORTS ELITE:
Aukera hau ezin hobea da kirol zaleentzat: futbolean, saskibaloian edo tenisean aritzeko eskola batera joan zaitez, eskolako curriculumaren zati gisa, eskola orduetan.

OSTATUA:
Familian, mantenu erdian, beste ama-hizkuntza bateko nazioarteko ikasle batekin gela partekatu ahal izango da.



PROGRAMAREN BARNE

- Australian iritsiera eta itzulera lekualdatzeak.
- Ostatua familian, mantenu erdian.
- High Schooleko matrikula.
- Uniformeak eta liburuak.
- Orientazio Kanpalekua Sydneyn.
- Tokiko koordinatzailea.
- Aseguru medikoa eta istripu-asegurua.
- Leaders motxila.

FAMILIA

FRANTZIA / Biarritz

Adinak: 14-17 urte

Datak: uztailaren12tik abuztuaren 2ra

SURFA

JARDUERA ANITZ

Euskal kostaldean dago Biarritz, itsasoaren eta mendiaren artean. Hiri lasaia da, urre-koloreko hondarreko hondartza izugarriak ditu, ondare kultural eta historiko aberatsa eta bizitza sozial bizia. Gure eskola hiriaren erdialdean dago, Anglet eta Biarritzeko hondartzetatik oso gertu, surfa maite dutenentzako paradisua.

Frantseseko ikastaroa: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
Ikasleek surf-ikastaro bat egin dezakete, astean 4 klase ordu eta erdiz, astelehenetik ostiralera, edo eskolak antolatzen dituen jarduera eta ibilaldiez gozatu: Donibane Lohizunera, Baionara, txokolatearen museora, hondartzako kirolak.

OSTATUA:
Familia anfitrioietan, mantenu osoan, beste ama-hizkuntza bateko nazioarteko ikasle batekin gela partekatu ahal izango da.

PROGRAMAREN BARNE

Frantses ikastaroa, osatua familian mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

FAMILIA

FRANTZIA / Arcachon

Adinak: 13-17 urte

Datak: ekainaren 28tik abuztuaren 15era

SURFA

JARDUERA ANITZ

Arcachon Akitaniako departamentuko kostaldeko herri ederra da, Bordeletik 70 kilometrora. Hiri hau hondartza eta naturagatik ezaguna da, eta bizimodu lasaia du.

Frantseseko ikastaroa: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
4 arratsalde astean, eskolak amaitu ondoren, ikasleek kanoa, zaldiketa eta Pilateko duna famatua ezagutzeko jarduerak egingo dituzte. Gainera, astean egun osoko txangoa burutuko da, asteazkenetan, Bordele eta Cap Ferretera, besteak beste.

SURFA: kirol hau maite dutenek aukera dute programa estandarrean astean 4 arratsalde gehitzeko, irakasle kualifikatuek emanak.

OSTATUA:
Familietan, beste ama-hizkuntza bateko nazioarteko ikasle batekin gela partekatu ahal izango da, mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Arcachonen iritsiera eta itzulera tokialdatzeak, frantseseko ikastaroa, ostatua familian mantenu osoan, gizarte programa eta aseguru medikoa eta Leaders motxila.

EGOITZA EDO FAMILIA

ALEMANIA/ Berlin · YoungAdults

Adinak: 16-18 urte

Datak: ekainaren 21etik abuztuaren 16ra

Berlin moda-barruti batetik ezagutu nahi duten 16 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat, hau da programa egokiena. Campusa Kastanienallee-n dago, Berlingo modako kalean. Egunero, ikasleek hiriaren zati batez gozatuko dute. Alemaneko ikastaroak arratsaldeetan izaten dira, eta, klasearen ondoren, jarduera gehiago egiten dira.

Alemaneko ikastaroa: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
2 jarduera egunero, hala nola kirolak, Berlingo Tourra eta erosketak, Wannsee lakurako txangoa, bizikleta-irteerak, gaueko jarduerak eta zinema, barbakoak edo diskoteka. Txangoa larunbatetan: Potsdam edo Castle Sanssoutil.

OSTATUA:
Familian edo egoitzan, gela partekatuetan eta mantenu erdian.

PROGRAMAREN BARNE

Iritsiera eta itzulera igandean, alemaneko ikastaroa, ostatua familian edo egoitzan, mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

ALEMANIA/ MunichAdventure

Adinak: 12-17 urte

Datak: ekainaren 21etik abuztuaren 16ra
2, 3 edo 4 aste

ABENTURA

Munich Adventure kanpalekua Municheko hegoaldean dago, Alemaniako Alpeetako lakurik gardenetako batean, Spitzingsee lakuan. Kokalekua ezin hobea da, mendi eta lakuen artean era guztietako jarduerak egiten dira kanpoan. Munich 50 kilometrora bakarrik dago, eta astean 2 txango antolatzen dira hirira.

Alemaneko ikastaroa: 15 ordu astean.

GIZARTE PROGRAMA:
Kultur eta kirol jarduerak egunero: orientazio jolasak, barbakoak lakuan, zinema gauak, baltsak, ibilaldiak bizikletaz, gauak eta jolasak. Irteerak Munichera eta leku interesgarrietara, astean bitan.

OSTATUA:
Landa-etxe batean, lakura begira, 3-4 ikasleko geletan, bainugelarekin eta mantenu osoan.

PROGRAMAREN BARNE

Munichera iritsiera eta itzulera lekualdatzeak, alemaneko ikastaroa, ostatua egoitzan mantenu osoan, gizarte programa, aseguru medikoa eta Leaders motxila.

LEON/ Summer Camp

Adinak: 6-16 urte

Datak: ekainaren 21etik abuztuaren 22ra

FENAR IBARREAN, LEONEKO MENDIKO HERRI TXIKI BATEAN eta Leondik 30 kilometrora kokatzen da Summer Campa. Programaren eszenatokia finka polit bat da, antzinako landetxe berritu bat eta erabat ekipatutako egurrezko hamazazpi etxola dituena. Ingeleseko eskolak emateko gelak, jolas-gela handi bat, liburutegia, jantokia, garbitegia eta barbakoa gunea ere baditu.

Aire zabaleko kirolak eta jarduerak egiteko, finkak 30.000 m^2-ko lursaila du, igerilekua, futbol zelaiak, boleibola, minibasketa eta tirolina eta eskalada dituena.

Gainera, camper gazteek kanpalekuko gaiak aukeratu ahal izango dituzte: ludikoa, futbola, saskibaloia edo dantza.

INGELES IKASTAROA:
45 ordu hamabostaldi bakoitzeko, klaseen eta tailerren artean, jatorrizko irakasleekin.

OSTATUA:
Egurrezko etxoletan 8-10 ikasleentzako literak, bainugelarekin.

GIZARTE PROGRAMA:
Ingeleseko eskolak jarduerekin, tailer, kirol eta naturarekiko interakzioarekin konbinatzen dira. Inguruko tokietara txangoak, abentura anitzeko jarduerak, kirol jarduerak eta gauekoak.

Beste norakoak

AURREKO HELBURUEZ GAIN, LEADERSEK NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMA UGARI DITU MUNDU OSOAN ZEHAR.

- Txikienentzat, nazioarteko kanpalekua **Andorran**, 15 kirol eta jarduera aukera baino gehiagorekin. Ezagutu **Camp Rialp**. 7 urtetik aurrera.
- Boluntario-programak **Hego Afrikan**: burutu gizarte-laneko zereginak, hizkuntzak praktikatzen eta kezka berberak dituen jendea ezagutzen.
- **Manchester Football Academy**, futbol profesionaleko programa batez gozatu Manchester City-ren instalazioetan, klubeko langileek beraiek koordinatuta.

New Yorken programa egiteko aukera ere, New York City klubak antolatuta.

- Zientzietako zaleentzako programa ezin hobea dugu Dublinen, **Trinity Walton Club**-en laguntzarekin: Zientzia-, teknologia-, ingeniaritza- eta matematika-tailerrak, Trinity-ko irakasleek gainbegiratuta.
- Ikasi ingelesa **Bristolen** ordaindu gabeko lan-praktikak egiten dituzun bitartean, 16 urtetik aurrera. Internshipak egiteko aukera ere badago.
- **Suitza**, ingeleseko, frantseseko edo alemaneko kanpalekuak. Nork eskaintzen du gehiago?

IRLANDA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
MULLINGAR EQUESTRIAN	Klaseak, jarduerak, ekitazioa, ikasle-egoitzan	10etik 18ra	ekainak 28, uztailak 12 eta 26
MARINO INSTITUTE OF ED.	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan	11tik 17ra	ekainak 26tik abuztuak 18ra
TRINITY WALTON STEM	Ingeles eta zientzia klaseak, jarduerak, ikasle-egoitzan	13tik 17ra	uztailak 12tik 26ra
INTEGRATION PROGRAMME	Klaseak, jarduerak bertako gazteekin (familia, ikasle-egoitza)	11tik 14ra	ekainak 27tik uztailak 26ra
ERRESUMA BATUA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
CAMP LANGLEY	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan. Lego Robotics aukeran	8tik 14ra	uztailak 4 eta 8, abuztuak 1
SIR EDWARD EN ELY	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan	8tik 14ra	uztailak 5, 12, 19 eta 26
OXFORD	Klase trinkoak eta jarduerak	16 urtetik aurrera	uztailak 1, 15 eta 29, abuztuak 12
BRISTOL WORK PL.	Klaseak eta lan praktikak, familian	16 urtetik aurrera	ekainak 1etik aurrera
MANCHESTER CITY FOOTBALL	Klaseak eta futbola Manchester Cityrekin, ikasle-egoitzan	9tik 17ra	ekainak 28, uztailak 12 eta 26
ESTATU BATUAK	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
SAN DIEGO	Klaseak eta familia jarduerak. Surfa aukeran	12tik 18ra	ekainak 27tik abuztuak 15era
DISCOVER NEW YORK	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan	13tik 18ra	ekainak 28tik abuztuak 1era
STEM HARVARD, BOSTON	Ingeles eta zientzia klaseak, jarduerak, ikasle-egoitzan	12tik 18ra	uztailak 5etik abuztuak 1era
KANADA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
TORONTO, YOUNG ADULTS	Klaseak, jarduerak eta bizitza familian	15etik 18ra	ekainak 22tik aurrera
CANADIAN ADVENTURE	Kanadiar kultura jarduerak eta bizitza familian. Bizikidetza kanadiarra	14tik 18ra	uztailak 3tik abuztuak 11ra
MONTREAL	Ingeles edo frantses klaseak, jarduerak, bizitza familian	13tik 17ra	ekainak 28tik aurrera
FRANTZIA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
SAINT MALO, BRETAÑA	Klaseak, jarduerak eta bizitza, familian. Bela/ekitazioa aukeran	12tik 18ra	ekainak 28tik abuztuak 15era
ANTIBES	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan.	8tik 17ra	apirilak 5etik urriak 24ra
ALEMANIA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
LINDENBERG	Klaseak, jarduerak eta bizitza familian	13tik 17ra	Urte osoan zehar
KEMPTEN	Klaseak eta jarduerak, ikasle-egoitzan.	14tik 18ra	uztailak 5etik abuztuak 1era
MALTA	IKASTARO MOTA	ADINAK	DATAK
QWARA	Klaseak, jarduerak eta bizitza (familia, ikasle-egoitza)	8tik 17ra	ekainak 15etik abuztuak 24ra

IRLANDAN IKASTURTEKO PROGRAMAK aukera paregabea eskaintzen die ikasleei: hizkuntza ikasi eta Irlandako kulturaren funtsa bizitzea, ikasturte balioztagarri bat egiten duten bitartean.

Programa hau Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago, kultur aukera zabaldu, beren garapen pertsonala sustatu nahi badute, ingelesa ikasteaz gain, giro bero eta atseginean.

IKASTURTEA IRLANDAN 2020

Ikasturte osoaren alternatiba gisa, hiruhileko akademiko bat egiteko aukera dago. Ikasleak irailean hasiko du ikasturtea Irlandan, eta Espainian jarraituko du bere ohiko ikastetxean, Gabonetako oporrak amaitu ondoren.

ESKOLA

Irlandako erakundeak era askotako ikastetxeak ditu herrialde osoan, horien artean: eskola publikoak eta pribatuak, itunduak, laikoak edo erlijiosoak eta barnetegiak.

OSTATUA

Familian edo barnetegi batean, bi modalitate horietako edozein da ona ikaslearentzat, dena bere nortasunaren araberakoa da.

Familia irlandarrei buruz azpimarra dezakegu ikasleak hartzeko eta familia-giroan integratzeko duten adeitasuna eta jarrera, eguneroko jardueren partaide bihurtuz familiako beste kide bat izango balira bezala.

Barnetegietan, ikasleak ikastetxeko instalazioetan egoten dira, gela eta zerbitzu komunak partekatuz. Irlandako barnetegiak apaindura gutxiko eta tradizio handikoak dira. Ikastetxeko oporretan, ikasleak familiekin egoten dira.

ERAKUNDEA IRLANDAN

Ikasturteko programa garatzeko, Leadersek erakunde bat du Irlandan, bertako koordinatzaileen bidez programa gainbegiratzeaz arduratzen dena. Ikasleek harreman zuzena dute koordinatzaileekin eta ikasturteko gai guztietan eta familiari egokitzen laguntzen diete.

PROGRAMAREN BARNE

- Elkarrizketa pertsonala eta ingeles testa.
- Orientazio bilera.
- Iritsiera eta itzulera lekualdatzeak Irlandan.
- Matrikula dagokion eskolan.
- Ostatua familian edo egoitzan.
- Aseguru medikoa eta istripu-asegurua.
- Tokiko koordinatzailea.
- Irlandako erakundearen eta Leaders gainbegiraketa.
- Ikasketak baliozkotzeko aholkularitza eta izapideak.

(*) Eska iezaguzu 2020-21 ikasturteko txosten informatiboa

ESTATU BATUETAKO ETA KANADAKO IKASTURTEKO PROGRAMA hamar hilabetez amerikar kulturan murgilduta “American way of life” bizi nahi duten Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Ikaslea familia batekin bizi da, eta High School batera joaten da, gero Espainian bere ikasketak jarraitzea ahalbidetuko dion sistema balioztagarri batean ikasiz.

2020-21 IKASTURTEA: ESTATU BATUAK ETA KANADA

HIGH SCHOOL

Ikastetxe mota desberdinak daude, aukeratutako programaren arabera. AEBko eta Kanadako High Schoolek, oro har, irakaskuntza-kalitate ona dute, pertsonalizatuagoa eta ikaslea ikaskuntzan inplikatzen duena. Hezkuntza-sistema ez dago soilik ezagutzen edo irakasgaien transmisioan oinarrituta, prestakuntza integralagoa eskaintzen baizik, kirolen eta kultura-jardueren praktika sustatuz.

Ikastetxe pribatuei dagokienez, AEBko eta Kanadako gure erakundeek hainbat ikastetxe erlijioso edo laiko dituzte, curriculumetik kanpoko irakasgai eta jarduera ugari dituztenak.

OSTATUA

Familia anfitrioian ostatu hartzea da herrialdeko kultura zuzenean ezagutzeko aukerarik egokiena. Amerikar eta Kanadar familien artean, nabarmentzekoa da abegitasuna eta beste kultura batzuei beren bizimodua eta herrialdea erakusteko nahia, ikasleak familia-giroan hartu eta integratzen baitituzte, eta eguneroko jardueretan parte hartzen baitute.

ERAKUNDEA AEBN eta KANADAN

Ikasle guztiek, bai familian bai barnetegian, AEBko eta Kanadako erakundearen laguntza eta gainbegiratze etengabea dute, baita inguruko koordinatzailearena ere.

PROGRAMAREN BARNE

- Elkarrizketa pertsonala eta ingeles testa.
- Orientazio bilera.
- Iritsiera eta itzulera lekualdatzeak.
- Matrikula dagokion eskolan.
- Ostatua familian edo egoitzan.
- Aseguru medikoa eta istripu-asegurua.
- Tokiko koordinatzailea.
- Aldizkako txostenak.
- Amerikar erakundearen eta Leaders gainbegiraketa.
- Ikasketak baliozkotzeko aholkularitza.
- Balioztatze eta bisa izapideak.

(*) Eska iezaguzu 2020-21 ikasturteko txosten informatiboa

LEADERSEK atzerriko hizkuntza-programak eskaintzen ditu helduentzat, 16 urtetik gora, urte osoan. Ingelesa, frantsesa, alemana, italiera, errusiera, portugesa, txinera, japoniera edo arabiera, ikasi hizkuntza horiek gustukoen duzun tokian.Estatu Batuetako mendebaldeko kostatik, Japoniaraino, Hegoafrikaraino edo Zeelanda Berriraino, Europako edozein hiritatik pasatuz, LEADERSek zentro laguntzaileen eta hizkuntza-eskolen sarea du, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala bermatzen duena.

HIZKUNTZA IKASTAROAK HELDUENTZAT: 16+

Datak: 2 astetik aurrera.

Urteko astelehenero hasiera.

HIZKUNTZA IKASTAROAK URTE OSOAN:

Imajinatzen duzu zure burua Kaliforniako hondartzetan surf egiten? Edo Londresko museo amaigabeak bisitatzen, Broadwayko musikal batera joanez edo, besterik gabe, Dublingo ehunka urteko pubetan zure lagun berriekin garagardo-pinta batez gozatzen?

Hizkuntzan aurrera egin bitartean lan-praktikak egin nahi dituztenentzat, probatu gure Work Experience programa Bristolen, lan-merkatuan sartzeko aukera paregabea.

LEADERSEK eskola hoberenak eskaintzen dizkizu leku anitzetan: familiakoena edo urrunenena eta exotikoena. Hizkuntza ikasten duzun bitartean gogokoen dituzun kirol eta zaletasunak praktikatzeko lekuak. Familietan edo egoitzetan ostatu hartuz, zeuk erabakitzen duzu.

- **Erresuma Batua: Edinburgo, Liverpool, Londres, Oxford, Cambridge, Brighton, Torquay...**
- **Irlanda: Cork, Dublin, Galway.**
- **Malta.**
- **AEB: San Frantzisko, LA, Boston, New York.**
- **Kanada: Toronto, Montreal, Vancouver.**
- **Alemania, Frantzia, Suitza, Hego Afrika, Australia, Zeelanda Berria, Japon edo Txina.**

AUKERA UGARI

FAMILIENTZAKO IKASTAROAK:

5 urtetik gorako seme-alabak dituzten familientzako programa, atzerrian egonaldi bat egin eta, aldi berean, familiako kide bakoitzarentzat pentsatutako hizkuntza ikastaro bat egin nahi dutenentzat.

Programak klaseak eta aisialdia konbinatzen ditu familiako kide guztientzat.

Hainbat aukera daude, lehentasunen arabera: apartamentuak edo “cottages” edo familia anfitrioietan egotea, erabat murgiltzeko.

Iraupena eta datak: aste batetik aurrera. Ekaina-uztaila-abuztua.

Devon, Oxford, Canterbury, Londres, York, Dublin, Malta, Boston, Niza... Galde iezaguzu!

PROGRAMAREN BARNE

- Aukeratutako hizkuntzaren ikastaroa: orokorra edo trinkoa, azterketa ofizialak prestatzea, iraupen luzeko ikastaroak, irakaslearen etxean egindako ikastaroak, unibertsitatera sartzeko ikastaroak, profesionalentzat.
- Ostatua familian edo egoitzan.
- Gizarte programa, jarduerak eta aukerako txangoak.
- Hegaldiaren eta lekualdatzeen kudeaketa.
- Gaixotasun aseguru medikoa eta istripu-asegurua.
- Aholkularitza pertsonalizatua.